

Ahotsak

"Programan parte hartzeak autoestimuan laguntzen die, saiatuz gero nahi dutena lortu dezaketela ikusten dutelako"



Gipuzkoako Eskola Kirola ereduak bi programa eskaintzen ditu desgaitasuna duten eskola-umeei zuzenduta: **EKE Eskola Kirol Egokitua** programa, eta **EKI Eskola Kirol Inklusiboa** programa. Bi programen helburua da neska-mutiko guztiei kirol praktikarako eskubidea

bermatzea. Bi ekimenen inguruko xehetasunak eta **EKE**n parte hartzen ari diren familien esperientziak jaso dira bideoan, eta **EKI** programan parte hartzen duen familia batean testigantza, aldiz, [lotura honetan](#).



Ba al zenekien?




6 eta 21 urte artean dituzten eta aitortutako desgaitasun bat duten gipuzkoarren % 37k parte hartzen duela bere beharretara egokitutako programa aktibo eta erregularretan?

- 2024-2025 ikasturtean, aniztasun funtzionala duten 6 eta 21 urte arteko 282 ikaslek parte hartzen dute EKE programan.
- Eta aniztasun funtzionala duen ikasle bat (gutxienez) duten eta ikaskideekin modu inklusiboan aritzen diren 175 EKI talde daude aurtengo denboraldian.

EKE programa eta EKI estrategiaren inguruan gehiago jakin nahi izanez gero, hemen azalpen bideoak eta inklusiorako gida.

Albisteak



Zeintzuk dira Eskola Kirolaren oinarriak Euskadiko Kirol Legearen arabera?

Eusko Jaurlaritzaren eskumena da Eskola Kiroleko oinarriak eta printzipio orokorrak arautzea. Hain zuzen, martxoaren 30eko Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren 2/2023 Legeak zehazten ditu Eskola Kirolaren ardatzak.



Nola egokitzen degu kirol bat hezigarria izan dadin?

Gipuzkoako Eskola Kirola programako arauen bidez, jokatzeko modua ez ezik, ikasteko eta gozatzeko modua ere zehazten da. Horregatik, modalitate bakoitzeko araudiak egokitu dira haurren adinaren eta gaitasunen arabera.



Kirol-jarduera gertuko testuinguruan egitearen garrantzia

Eskolaz kanpoko kirol-jarduerak udalerritik gertu egitearen oinarrian azterketa eta ikerketa sendoak daude. Ikerketa hauek aditzera eman dute kirol-espezializazio goiztiarrak eta familien gehiegizko ardurak ondorio negatiboak izan ditzakeela gazteen osasun fisiko eta emozionalean.

Familian egiteko



Kontakturik gabeko Eskola Kirola

Covid 19aren eraginez, kontakturik gabeko Eskola Kirola egiteko baliabideak prestatu zituen Aldundiak 2020-2021 urteetan, begirale edo prestatzaileei alternatibak eskaintzeko. Oso oinarritzko materialekin egin daitezkeen jolas eta jarduera irudimentsuak dira, 12 saiotan antolatuta, eta adimen emozionala lantzeko 28 bideo labor ere jasotzen dira.

6 eta 12 urte arteko haurrei zuzenduta egon arren, familia osoak egiteko moduko joko erraz eta dibertigarriak dira! Klik bakarrean, denak eskuragarri dituzue. Ondo pasa!




Zergatik Gipuzkoan Eskola Kirola ikastetxeetan egin da?

Gipuzkoan egiten den Eskola Kirola nabarmen lotuta dago heziketarekin. Sarritan esaten dugu kirolak balio positiboak eskaintzen dituela eta bide egokia dela kirol alorrean hezteko. Baina, zoritxarrez, hori ez da

beti gertatzen. Egia da potentzial handia duela zentzu horretan, baina beharrezkoa da intentzioz egitea, transmititu nahi diren balioak zehaztuta eta arlo horretan modu egokian lan eginda.

Testimonios

"Participar en el programa les ayuda a reforzar su autoestima, porque entienden que con esfuerzo pueden alcanzar sus objetivos."



El modelo de Eskola Kirola de Gipuzkoa ofrece dos programas dirigidos a escolares con discapacidad: **EKE Eskola Kirol Egokitua** y **EKI Eskola Kirol Inklusiboa**. Ambos tienen como objetivo garantizar el derecho de todos los niños y niñas a practicar deporte.

En el vídeo se presentan los detalles de estas iniciativas y las experiencias de las familias que participan en el programa **EKE**. Además, en el [siguiente enlace](#), se recoge el testimonio de una familia que forma parte del programa **EKI**.



¿Sabías que...?



¿El 37% de la población guipuzcoana de entre 6 y 21 años que tiene una discapacidad reconocida participa en programas activos y regulares adaptados a sus necesidades?

- En el curso 2024-2025, 282 escolares con diversidad funcional de entre 6 y 21 años participan en el programa EKE.
- Y hay 175 equipos EKI en los que participa, como mínimo, un escolar con diversidad funcional junto con sus compañeros y compañeras de manera inclusiva.

Si quieres saber más sobre el programa EKE y la estrategia EKI, aquí encontrarás un vídeo explicativo y una guía sobre inclusión.

Noticias



¿Cuáles son los principios del Deporte Escolar según la Ley del Deporte del País Vasco?

La regulación de los principios generales y las bases del Deporte Escolar es competencia del Gobierno Vasco. Mediante la Ley 2/2023, del 30 de marzo, de la actividad física y del deporte del País Vasco se establecen los ejes fundamentales del Deporte Escolar:



Así adaptamos un deporte para que sea educativo

En el Deporte Escolar de Gipuzkoa, las reglas no solo marcan cómo se juega, sino también cómo se aprende y se disfruta del deporte. Por eso, adaptamos los reglamentos de cada modalidad para que sean adecuados a la edad y habilidades de los niños y niñas.



La importancia de la práctica deportiva en el entorno cercano

La decisión de realizar actividades deportivas extracurriculares cerca del municipio se fundamenta en estudios que han demostrado que la especialización temprana y el exceso de responsabilidades pueden afectar la salud física y emocional de las y los jóvenes.

Plan en familia



Deporte Escolar Sin Contacto

Debido al Covid-19, en 2020-2021 la Diputación Foral puso en marcha una serie de recursos para practicar Deporte Escolar sin contacto, ofreciendo así alternativas a los y las entrenadoras. Son juegos y actividades creativas que se pueden realizar con materiales muy básicos, organizados en 12 sesiones, y que incluyen además 28 vídeos para trabajar la inteligencia emocional de los y las menores.

Aunque están pensados para niños y niñas de entre 6 y 12 años, son juegos sencillos y divertidos que se pueden disfrutar en familia. ¡Accede a todos ellos en un solo clic y a disfrutar!



¿Por qué el deporte escolar en Gipuzkoa se desarrolla en los centros educativos?

El deporte escolar en Gipuzkoa tiene un marcado acento educativo. A menudo decimos que el deporte transmite valores positivos y que es una vía adecuada para educarse en el deporte. Pero desgraciadamente, esto no siempre tiene por qué ser así.

Es cierto que tiene un gran potencial en este sentido, pero es necesario que se haga de una manera intencional, definiendo qué valores se quieren transmitir y trabajando en ello de manera consciente.